

7. ORDENANTZA FISKALA, HILERRIETAKO ZERBITZUEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak hilerrietako zerbitzuak emateagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

II. ZERGAGAIA

2. ARTIKULUA

Udal hilerrietako ondorengo zerbitzu hauek dira da tasa honen zergagaia: ehorzketa lekuak izendatzea, panteoiak eta hilobiak eraikitzeko eta horiek erabiltzeko baimenak ematea, hilarri, burdinsare eta apaingarriak mugitzeko edo jartzeko baimenak ematea, iraunarazte zerbitzuak eta Hileta Osasun Arloko Poliziaren Araudian aurreikusitakoaren arabera bidezko diren edo interesatuen eskariz burutzen diren bestelako zerbitzuak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Zerbitzuaren emakida edo baimena eskatu dutenak dira subjektu pasibo zergadunak, edo bestela, emandako baimenaren titularrak.

IV. ARDURADUNAK

4. ARTIKULUA

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40 eta 41 artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek izango dute subjektu pasiboari dagozkion zerga-obligazioen gaineko betebeharrak solidarioa.

V. SALBUESPEN SUBJEKTIBOAK

5. ARTIKULUA

Salbuespen izango dira honako kasuetan emandako zerbitzuak:

- a) Kaudimengabeko pertsonen ehorzketak
- b) Agintaritzak judizialak aginduta hobi komunean egindako ehorzketak.

VI. ZERGA KUOTA

6. ARTIKULUA

Zerga-kuota finkatzeko, Ordenantzaren eranskinean azaldutako tarifak aplikatuko dira.

VII. SORTZAPENA

7. ARTIKULUA

Kargapeko zerbitzuak ematen hastean sortuko da tasa eta hori ordaindu beharra; horren ondorioetarako, zerbitzuak eskatzen diren unea emango da hasieratzat.

VIII. AITORPENA, LIKIDAZIOA ETA SARRERA

8. ARTIKULUA

a) Subjektu pasiboek eskatuko dute dena delako zerbitzua ematea.

b) Zerbitzu bakoitzak bere likidazioa izango du, banaka eta modu autonomoan. Behin zerbitzua eman ondoren, horren berri jakinaraziko zaie subjektu pasiboek, Dirubilketari buruzko Foru Erregelamendu Orokorrean ezarritako moduan eta epeetan ordain dezaten dagokien kopurua Udal Diruzaintzan.

IX. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

9. ARTIKULUA

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. artikuluan eta ondorengoetan xedatuaren arabera sailkatuko dira zergei buruzko arau-hausteak, bai eta, hala dagokionean, bidezko diren zehapenak ezarri ere.

X. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

XI. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

SAN AGUSTIN ETA ANDRA MARI UDAL HILERRIAK

TARIFAK

A) Panteoiak eraikitzeke orubeak hilerri batean zein bestean:

1.- Panteoiak eraikitzeke orubeen emakida, legez ezarritako gehienezko eperako

.....1.034,00 €/m2

B) Andra Mari hilerrian hilobien emakida:

2.- Nagusien hilobia, 3 gorpu hobiratzekoa983,30 €/m2
3.- Gorpu bakarrerako nagusien hilobia717,15 €/m2

C) Nitxo-kutzak eta hezurtegi kutzak:

4.- 1985. urtea baino lehenago eraikitako nitxo-kutxen emakida, legez gehienez onartutako eperako
.....782,10 €

5.- 1985. urtea baino lehenago eraikitako hezurtegien emakida, legez gehienez onartutako eperako
1. Kategoria217,00 €
2. Kategoria108,20 €

6.- Nitxo-kutxen emakida, 10 urteko epe ez berriztagarrirako467,00 €

Nitxoak akurak irauten duen 10 urteko epean gorpu-hondarrak atera egiten badira, edo beste ehorzketa bat egiten bada, beste 10 urteko akurari dagokion tasa berri bat kobratuko da eskabidea egiten denean indarrean diren tarifen arabera, eta lehenengo hamar urteak betetzeko falta diren urte osoengatik dagokion kopuruan murriztuta, kopuru hori aurreko akurengatik ordaindutako tasaren arabera izanik.

7.- Lehen mailako hezurtegien emakidak, 30 urterako132,30 €

Seigarren eta zazpigarren puntuetan adierazitako emakidari dagokion tarifa horretan ondorengo zerbitzu hauen eskubideak ere sartzen dira: ehorzketa, nitxoa edo hezurtegia eta kanpoko estalkia zigilatzea.

8.- Udalak eraikitako hirugarren mailako panteoien emakidak, legez ezarritako gehienezko eperako
.....14.149,80 €

D) Hilerriko zerbitzuak:

9.- Gorpua panteoian ehorztea154,70 €
10.- Gorpua hilobian ehorztea85,70 €
11.- Gorpua nitxo-kutxan ehorztea79,30 €
12.- Gorpua hobian ehorztea85,70 €
13.- Gorpu hondarrak edo errautsak ehorztea, aurretiaz eskuratutako emakida izanik60,00 €

E) Gorpuzkinak hilobitik ateratzea eta lekuz aldatzea:

14.- Gorpuzkinak hilobitik ateratzea591,10 €
15.- Gorpuzkinak hilobitik ateratzea, murriztu edo/eta lekuz aldatu eta hilerri barruan berriz ehorztea96,00 €
16.- Errentamenduaren epea iraungitzean edo/eta ofizioz egiten den gorpuzkinen desehorzteak
..... EZ DA ORDAINDU BEHAR

F) Besterenganatzeak:



17.- Indarrean dagoen legearen arautegiaren arabera bideratzen diren udal hilerrietako hilobi, nitxo eta orubeen besterenganatze kasuetan, indarrean den ordenantza arautzailearen arabera emakidari dagokion balioaren %4a, edo, horrelakorik ezean, lurra eta eraikitako kripta zein altxaerari dagokionez egindako tasazioaren balioa.

Ondorio horietarako, ondorengo balorazioak hartuko dira kontuan:

- Lurra: A eta B epigrafeetan metro koadro bakoitzari ezarritako tarifa:

Lehen mailako panteoia (9 apal)	14,00 m ²
Bigarren mailako panteoia (6 apal)	10,50 m ²
Hirugarren mailako panteoia (3 apal)	7,00 m ²
Hilobiak: emakidaren balioa, Ordenantza Fiskalaren arabera	

- Kriptak: besterenganatze kasuetan aplikatu beharreko balioa

Lehen mailako panteoia	6.000,00 €
Bigarren mailako panteoia	4.207,00 €
Hirugarren mailako panteoia	2.404,00 €
Hilobiak	2.404,00 €

- Altxaerak: besterenganatze kasuetan aplikatu beharreko balioa

Lehen mailako panteoia	3.000,00 €
Bigarren mailako panteoia	2.100,00 €
Hirugarren mailako panteoia	1.200,00 €
Hilobiak	1.200,00 €

G) Jabetza agiriak:

18.- Tituluak, egiaztagiriak, kopiak eta abar28,90 €

H) Ez ohiko orduetako ehorzketak:

19.- Senideen eskariz, gorpuaren ehorzketa ez ohiko orduetan egiten bada, honenbesteko eskubideak kobratuko dira298,00 €

20.- Gorpua gordailuan edukitzeagatik, eguneko edo zatiko16,00 €

I) Altxaerak, gurutzeak eta abar eraikitzea

21.- Jabetzako panteoi eta hilobien kasuan, dagokion teknikariaren sinaduraz baimendutako egitasmoa eta txostena aurkeztu behar dira eskabidearekin batera, eta eraikuntza, instalazio eta obretako lizentziak arautzen dituen ordenantzaren xedatua bete behar da.

22.- Lurreko hilobien kasuan22,50 €

J) Emakiden berriztatzea:



23.- Emakidaren epea amaituta, berriztatzeko aukera aurreikusita dagoen kasuetan, Ordenantza honek kasu jakin bakoitzerako zehazten duen tarifaren %75a ordainduko da.

K) Emakida Udalari itzultzea:

24.- 30 urterako edo epe luzeagorako emakiden titular direnek, emakidarekin jarraitzeko asmorik izan ez badute, udalari itzul diezaiokete. Emakidaren titularrak bere gaian ordaindutako diru kopura itzuliko dio udalak egungo tarifak desberdinak izanez gero. Bestela, ordaindutako diru kopurua %25ean murriztuta.